

ELIKATUZ



Elikatuz **ordainketa-tresna** bat da, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak **supermerkatu-erosketak** (batez ere elikagai-produktuak) eskuratu dezaten errazten duena. Aukera ematen die onuradunei modu autonomoan erosteko, estigmatizazioa saihestuz eta elikadura osasungarria sustatuz.

NOR?

Hauek dira zerbitzu hau eskura dezaketen pertsonak:

- Beste baliabide batzuk eskuratu ezin dituzten pertsonak, diru-sarrerarik ez dutenak edo diru-sarrera mugatuak dituztenak.

NOLA ESKATZEN DA?

Zerbitzua eskatu aurretik, beharrezkoa da hitzordua izatea gizarte-langile batekin, zure premiei hobekien erantzuten dien zerbitzua den ala ez batera baloratzeko eta sartzeko baldintzak betetzen diren erabakitzeko. Hitzordua telefonoz edo aurrez aurre eska dezakezu gizarte-zerbitzuetan bertan edo Abiapuntun.



ESKUDUNTZA

Udal-eskumena:
Ermuko Udala



943 179 161



Erdikokale 21,
48260 Ermua